

IKASTOLA, HEZKUNTZA ERALDATZEN

110 IKASTOLA – 56.000 IKASLE

IKASTOLA. Euskal Herri osoan gaude, herrietan txertatuak, 110 ikastolatan; 4.500 irakaslek, 500 langile ez irakaslek, 56.000 ikaslek eta parte hartze zuzena duten haien gurasoek -gehienak kooperatibista dira eta- osatzen dugu ikastolen komunitatea. Eskaintza integrala; 0 urtetik hasita, Batxilergoraino eta Lanbide Heziketaraino. Hezkuntza eredu propioa ikasmaterialen sorkuntzan eta irakasleen prestakuntzan aitzindari izateaz gain, etengabe lanean dihardute hobekuntzan. Pedagogia aurreratu eta aurrerakoia ,euskal curriculuma dugu ardatz eta oinarri. Hezkuntza euskalduna eskaintzen dute, eleaniztasun sendoz, eta aitzindari dira Informazio eta Komunikazio Teknologiaren erabileran. Bizia da ikastola.

Ikastola Eredua

- 110 ikastola eta 56.000 ikasle biltzen dira Ikastolen Elkartean. Ikastola bakoitzak bere historia eta ibilbidea ditu, eta bere inguruaren errealitatera egokituta dago; baina guztiok partekatzen dituzte ezaugarri garrantzitsuak.
- Ezaugarri horien multzoari deitzen diogu Ikastola Eredua.
- Haurra ikastolara datorren lehenengo egunetik, familiarekin bat egiten dugu umearen garapen afektiboa, emozionala, sentsoriala eta kognitiboa sustatzeko. Testuinguru lasai eta natural batean
- 0-6 etapatik hasita, beren burua eta ingurua ezagutzeko eta baloratzeko, eta bizitzan zehar izango dituzten erronkei eta arazoei irtenbide egokiak bilatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkiegu ikasleei.
- Euskara eta euskal kultura, hezkuntza euskalduna da ikastolona. Ikasle euskaldun eleanitzak nahi ditugu, Informazio eta Komunikazio Teknologietan trebatuak.
- Gure hezkuntza ereduak garatzeko ikas material propioak sortzen ditugu, eta etengabeko hobekuntzan eta prestakuntzan diharduen irakasle eta profesional talde handi baten eta guraso eta bazkide konprometituen gidaritzapean egiten dugu lan.
- Horrela lortu dugu ikastolok aitzindaritza pedagogikoa; geure-geureak ditugun ezaugarriekin lortu ere.
- Hori da gure ereduak, hori da Ikastola ereduak.

Euskaratik mundura!

Ikastolan euskaraz bizi gara, eta euskaraz bizi nahi dugu Euskal Herrian. Euskaraz munduratzeko gara, eta mundua euskaraz ekartzen dugu ikastolara. Euskal Herritik mundura goaz, euskaratik, euskararen ardaztutako eleaniztasunarekin, gure hizkuntza proiektuarekin.

Herritik sortuak, herriarentzat

Hezkuntza zerbitzu publiko gisa ulerturik, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetzea du ikastolak: kooperatiba da. Gurasoak dira kooperatibista, eta haiena da azken hitza, haien erabakitzen dute. Gizarte partaidetza eta erantzukizuna ditu ardatz. Hezkuntza ulertzeko eredu propioa du, herriari eta herritarrei itsatsia, haien zerbitzura. Ikastolen Elkarteak batzen da beste ikastola guztiekin batera, Europar Kooperatiban. Euskal Herrirako ereduak da ikastola.

Hezkuntza eraldatzen!

Euskal curriculumetik eta konpetentzietatik abiatuta, hezkuntza eraldatzen ari da ikastola bere eredu pedagogikoarekin. Espazioak berritzen, eduki digitalak sortzen eta txertatzen, hezkuntza paradigma berriaren ere aitzindari da ikastola. Eta proiektu pedagogikoak ikertzen, garatzen eta berritzen ari da etengabe. Bikaintasuna ulertzeko modu bakarra dauka ikastolak: ikasle guzti guztien hobekuntza. Hezkuntza eraldatzen, gizarte eraldatzeko; gizarte justuago, parekideago, euskaldunago eta zorientsuago bat eraikitzeko.

Euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritua

Ikaslearen irteera profiletik abiatuta, marko pedagogiko propioarekin, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritzen da ikastola ereduak. Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ardazturiko planteamenduarekin. Arlo guztietan txertatzen ditu oinarritzeko konpetentzia orokorrak eta konpetentzia digitalak. Pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, eta egiten eta ekiten jakin behar du ikasleak. Hezkuntza integrala dauka, ikasmaterial propioekin.